



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
210. zkia . 2008ko maiatza



Erromeria ospatu da Zumardian

HONDARRIBIKO UDALA : EUSKARA BATZORDEA . DOMAINA



JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



HONDARRIBIKO ITSASKARI BAITA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA

Lorez apaindutako balkoien lehiaketa irekita dago

Hirian zehar balkoiak lorez eta landarez apaintzeko ohitura sustatzeko, Kultura Sailak Lorez apaindutako balkoien lehiaketa antolatu du beste urte betez. Hondarribiko hiriguneko etxebizitzan jabe eta maizter guztiek parte ahal izango dute, baita lorez eta landarez apaindutako ostalaritza nahiz merkataritza gremioek ere.

Izen ematea ez da beharrezkoa izango. Epahaimaia, urtean zehar, kalez kale ibiliko da eta bere iritzia emango du. Izen emandako balkoietako loreen kolore, apaintasun, itxura eta orijinaltasuna kontutan hartuko dira.

Denetara lau sari emango dira. Lehen hiruak etxebizitzetara zuzendutakoak, 200, 150 eta 100 euro landareak erosteko eta trofeo bana. Laugarren saria, ostalaritza eta merkataritzako sari berezia, 200 euro eta trofeoa izango da.



Sari banaketa herriko jaietan izaten da.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Vanessa Hernández Caverio

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK EKAINEN

- 1- ALMAJANO Mendelu, 26943 640068
- 8- ALAMEDA Harresilanda,9943 645798
- 15- ERAUSKIN San Pedro, 22943 641018
- 22- MAYI MARTINEZ(Almirante alonso)943 642191
- 29- IRAOLA (San Pedro, 5)943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK EKAINEN

- 1- ARRATIBEL (Mendelu auzoa)943 641975
- 8- GARMENDIA (Portuan)943 641136
- 15- MARTINEZ (Kale Nagusian)943 641212
- 22- ARRATIBEL (Mendelu auzoa)943 641975
- 29- GARMENDIA (Portuan)943 641136

Portuko bizilagunek Bentako aparkalekua erabiliko dute

Udalak hartu berri duen erabakiaren ondorioz, TAO txartelen 20 eta 23 zenbakiak dituzten Portuko bizilagunek Benta Zaharreko aparkalekuan bere autoak utzi ahal izango dituzte igande eta ostegun bitarteko gauetan, 20.00etatik 8.00etara. Txartel hauek Portuko bizilagunenak dira eta horrela, gauez aparkatzeko aukera gehiago izatea nahi du Udalak.

Hiri Segurtasuneko zinegotzi den Juan Mari Altunak erabaki honek "Portuko bizilagunei aparkatzeko eguneko azken orduetan izan ditzazketen arazoak leuntzeko balio du, beti ere astelehenetik ostegunera". "Horrela Bentako aparkalekuari onura gehiago aterako diogu bisitari gutxi dauden egunetan, eta ordutegi komertzialetik kanpo".

Ondorioz, aipatutako txartelak dituzten ibilgailuek igandetik ostegunera aparkatu ahal izango dute Bentan. "Ostiral eta larunbatetan orain arte bezala jarraituko du, orduan baita Hondarribiak eta batez ere, erdiguneak, bisitari gehien jasotzen duen momentua" dio Altunak.



Igandetik ostegunera irekiko da aparkalekua

Soroetaberriko proiekturako hamar proiektu aurkeztu dira



Soroetaberriko etxebizitzaren irudi bat

Denetara hamar izan dira "Soroetaberriko Beriritartzea" proiektua idazteko deitu den lehiaketara aurkeztu diren enpresak. Aurrekontua 150.000 eurokoa da, BEZ barne, eta behin esleipena egin ondoren, 90 eguneko epea izango du enpresak proiektua idatzi ahal izateko.

Soroetaberriko beriritartzea, Soroeta, Eguzki Lore, Haizeleku eta Girizi kaleetan dauden errepide eta gune berdeak egokitzean datza, baita kale hauetako ur, elektrizitate eta ur-irteeren sareen birgaitzea ere.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kasino Zaharreko babeserako horma birgaitu da

Joan den martxoan ezezagun batzuek Kasino Zaharreko babeserako horma bat desegin zuten. Aste honetan zehar, Udaletxeko langileak horma hau birgaitu berri dute. Obrek aste bete iraun zuten.



Lanak hasi ziren uneko irudi bat

Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik da

Maiatzaren 15etik uztailaren 1 arte irekita egongo da hiri eta landa izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea. Hiru erataria egin daiteke ordainketa:

- a) Ordainketa-agirian zerrendatutako banketxeetan.
- b) <<www.hondarribia.org>> Udalaren web orriaren bitartez (on-line ordaintzeko).
- c) Kutxazain automatikoen bitartez, zerbitzu hau eskaintzen duten erakundeetan.

Harresiak garbitu eta sendotzeko lanen lehiaketa deialdia egin da

Udalak Hegoaldeko eta Mendebaldeko Harresiak garbitu eta sendotzeko obrak esleitzeko lehiaketa deitu du berriki. Aurrekontua 310.000 eurokoa da, BEZ barne.

Helburua, Hondarribiko gune harresituaren berreskuratzea eta indartzea da. Kasu honetan, bi harresi zati hauen goikaldeak egokitzea da egingo dena. Hegoaldeko harresia, Santa Mariatik Erreginareneko Baluarte doana da, eta Mendebaldekoa aldiz, Erreginareneko Baluartetik San Nikolasera doana. Lan guztiek jarraipen arkeologikoa izango dute.

Behin Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratuta, argitaratu berria da, eta epea igarota, enpresek bere eskaintzak bidali beharko dituzte. Uda bukaerarako lanak hastea aurreikusten du Udalak. Lanak egiteko epea, sei hilabetekoa izango da.



Garbitu eta sendotuko den harresietako bat

a-dos moda

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

AXOLA INMOBILIARIA AGENTZIA

**Salmentak
erosketak eta
alokairuak**

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542

Merkataritza indartzeko plan bereziak lehen urratsak eman ditu azken egunotan

Hondarribiko Udalak Bidasoa Biziriken bitartez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin eta "Higer" udalerriko merkatarien elkartearekin batera, Merkataritza Indartzeko Plan Bereziaren eguneratzea martxan jarri du. Plan honen egitasmoa ekintza desberdinen bidez, hala nola hirigintza, merkataritza, enpresa-ekintzak, ... hiriko merkataritza egituraren oreka bilatzeaz gain, modernizazio prozesuan lagundu nahi du.

Proiektu honen egikaritza teknikoa IKERTALDE Talde Aholkulariak burutuko du merkataritza eskaria eta eskaintzaren azterketa hainbat prozesuren bitartez; batez ere hiriko erosleei eginiko galdesorta baten bidez kontsumitzaileen erosketa ohituren azterketa nagusia garatuko da.

Hona hemen prozesu hau osatuko duten faseak:

- 1.- Hondarribiako Merkataritza eskaeraren azterketa: Kontsumitzailearen profilaren, ohituren eta gastu-portaeraren azterketa.
- 2.- Merkataritza eskaintzaren azterketa: Hondarribiako merkatariairen ezaugarrien eta bere egoeraren diagnostiko zehatzaren azterketa sakona.
- 3.- Hirigintzako eta merkataritzako ekintza plana: Proiektu bat egitea, partekatua, adostua eta gure hirirako nahi litzatekeen merkataritza ereduarekin koherentea.
- 4.- Proiektuaren zabalkundea eta komunikazioa.

Partehartza zabala

"Hasiera-hasieratik nahi izan da prozesua erabat zabalik egotea parte hartu nahi dutenentzat, dinamikoa izatea eta merkataritzaren eta hirugarren sektoreko gainerakoen artean sortzen diren sinergiak kontuan hartuko dituen izatea. Maiatzaren erdialderako merkataritza eskariaren eta eskaintzaren azterketa-fasea

egitea espero da, eta baita merkataritza inguruneen espazio-azterketa; horien emaitzak Lan-Mahaietan erakutsiko dira" dio Maite Pelaezek, Merkataritzako zinegotziak.

Denbora horretan informazioa jaso nahi da, hiriko kontsumitzaileen artean egingo diren inkesta eta iritzi-bilketaren bidez; horri esker merkataritza-gastuaren portaera -zehazki gastua zerk eragiten duen edo uxatzen duen- aztertzeko garrantzitsuak izan litezkeen ondorioak atera ahalko dira.

"Merkataritza-eskaeraren azterketa amaitutakoan" gehitu du Pelaezek, "hiriko merkataritza-eskaintzaren azterketa gauzatu-ko da; horretarako, bertako merkataritzaren unibertso osoari inkestak egingo zaizkio, merkataritzaren profila zein den ikusteko eta sektorearen iritzia jasotzeko hirigintza-alderdien eta enpresa-kudeaketaren inguruan. Datuetatik ateratzen diren ondorioak sektoreari buruzko ikuspegi bat lortzeko bidea emango dute, sektorearen bilakaerari zein espektatibei dagokienez, eta baita hondarribiar merkatariairen profila, eta establezimenduen lehiakortasun-maila ezagutzeko aukera ere".

Maiatzaren bigarren hamabostalditik aurrera, hausnarketaren ordua izango da. Partehartze handia izatea nahi da, eta ondorioz, Hondarribiko Udaleko eta Bidasoa Bizirikeko web guneetan foro elektroniko bat gaitu da, merkatariek bere iritziak eman ditzaten.



Plana Portuan zentratzen da nagusiki



Higer Bidea, nº 6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Francisco Javier Salaverriak irabazi du Aste Santuko argazki lehiaketa

Ezagutzen dira jadanik Udaletxeko Turismo departamentuak antolatzen duen Aste Santuko Argazki Lehiaketan garaile atera diren lan eta artistak. Denetara 42 lan aurkeztu dira, eta denen artean garailea Francisco Javier Salaverria Ugartemendia eta "Descendimiento" izeneko argazkia izan dira.

Bigarren saria, "Presentación de la cruz" argazkiarentzat izan da, bere egilea Xabier Arribas Molinero delarik. Hirugarren saria aldiz, Miguel Angel Prado Ramosen "Espera de Cofrades" argazkiarentzat izan da.

Epaimahaia Floren Portu eta Izaro Eceiza argazkilariek, Maite Pelaezek, Turismo zinegotziak eta Marilis Goñik, Turismo teknikariak, azken hau idazkari gisa, osatu dute.

Martin Iturberen urrezko ezteiak direla eta omenaldia antolatu da

Don Martin Iturbek apaiz lanetan dabilenetik 50 urte bete dituenek, datorren ekainaren 15erako omenaldi bat antolatu da. 12.30tan eukaristia bat egongo da Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mari Parrokian, eta jarraian, bazkari bat ospatuko da Ardora jatetxean. 37 euro balio du sarrerak.

KUTXAn helburu honekin kontu korrante bat ireki da:

2101 0039 19 0126384015

Informazio gehiagorako, honako zenbaki hauetako batera deitu: 943 644574, 943 642993 edo 943 640658

Sabino Arana eta Murlane Mitxelena kaleko farolak aldatu dira



Farola berriak horrelakoak dira

Udalak Sabino Arana eta Murlane Mitxelena kaleetako farolak aldatu berri ditu. Orain artean zeudenek 22 urte egin dituzte. Argi berrieak ingurunearekin hobeto egokitzen dira.

Denetara 23 farola aldatu dira eta beste zenbait egokitu. Hortaz gain, Murlane Mitxelena kaleko kuadro elektrikoa aldatu egin da, Asto Bidean aurkitzen dena, hain zuzen.

Lanen aurrekontu osoa 127.962,29 eurokoa da.



BARRONDOARRIBI

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Alde Zaharreko leiho eta balkoien dekorazioa

Aintzinako Perien X. Edizioa dela eta, aurten ekainaren 14 eta 15ean ospatuko dena, Hondarribiko Udaleko Turismo departamentutik hiritarraren lankidetzat eskatzen da Alde Zaharreko leiho eta balkoiak hornitu ahal izateko; horretarako, Erdi Aroko 300 estandarte banatuko dira, kolore eta bizitasun handiagoa emateko.

Estandarte hauen banaketa eskaera ordenaren arabera egingo da, inongo kosturik gabe hiritarrarentzat, baldintza hauek bete beharko direlarik:

1. Leiho edo balkoia lehen edo bigarren solairuan egotea
2. Ondoko kaleetan bizitzea:

Kale Nagusia	Fraxkueneko Murrua
Panpinot kalea	Eguzki kalea
Gipuzkoa plaza	Harategi kalea
Denda kalea	San Nikolas kalea
Arma plaza	Bretxa Oria etxea




Estandarteak Kale Nagusiko Menina tailerrean daude

Estandarteak jasotzeko tokia eta ordua honako hau da:

Maiatzaren 26tik 30era, 10.00etatik 13.30etara eta 17.00etatik 20.00etara, Kale Nagusiko 30.ean dagoen Menina Artisan Tailerrean.

LAGUNDU ALDE ZAHARRA BERPIZTEN!!!!



Kolore klasikoak dituzte estandarteek

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Hamar abesbatzek parte hartuko dute Herri Kanta jaialdian

Ezagutzen dira jadanik zeintzuk izango diren ekainaren 8an ospatuko den Herri Kantaren XIX. edizioan parte hartuko duten abesbatzak, baita abestuko dituzten kantak ere.

Hamar abesbatza ariko dira Gipuzkoa Plazan, goizeko 11.30etatik aurrera. Bukae-ran abesbatza guztiek batera "Maiteak galdegin zautan" eta "Agur Jaunak" kantatuko dute.

Jaialdia bukatu ondoren, koroak kalez kale ibiliko dira kantatzen bazkaltzera joan arte. Bazkaria Santiago kalean jarriko den karpa batean egingo da. Bertan, bazkal ondoren berriro abestuko dute eta herrian zehar jarraituko dute kantatzen.

1-	ZUMARDIKOAK Maritxu, Maritxu Saratarra	Zuzendaria: Iñigo Salaberria Hitza: Elizalde-Euzkitze/Musika: Luis Elizalde Hitza: Herrikoia/Musika: J.M.G.Bastida
2-	AMUTE-KOSTA Kantuz Goizian argi hastian	Zuzendaria: Joxemari Etxaburu Musika: Alexander Lesbordes Musika: Etchaun
3-	OHITTUR Itsasoa laño dago Ez nau izutzen elhurak	Zuzendaria: Nagore Iridoy Hitza: Herrikoia / Musika: Javier Busto Hitza: Herrikoia / Musika: Javier Busto
4-	XARMANTA Banbotte batean Kai Zaharreko brixaran	Zuzendaria: Pili Anuncibay Hitza: Lurdes Zubeldia/Musika: Javier Busto Hitza eta musika: Lurdes Zubeldia
5-	KARDINERUAK Amaren besoetan Maite ederra	Zuzendaria: Arantza Lasa Hitza: Gorka Sarriegi/Musika: Sorotan Bele Hitza: Jexusmari Mendizabal/Musika: Mikel Garikoitz
6-	KLINK Itxasua eta..... Galtzaundi	Zuzendaria: José Ignacio López Hitza: Herrikoia/Musika: A.Zabala Hitza: Ramos Azkarate/Musika: Herrikoia
7-	OLAGARRO Mendiko negarra Ez bedi galdu euskera	Zuzendaria: Mikel Zuazabeitia Hitza: Sabin Arana Goiri/Musika: Victor de Zubizarreta Hitza: Jose Mari Iparragirre/Musika: Gontzal Mendibil
8-	GOXOKI Bi eusko abesti Galtzaundi	Zuzendaria: Carlos Lazkanotegi Musika: B. Sagastizabal Hitza; Ramos Azkarate/musika: Herrikoia
9-	KASINO ZAHARRA Euskalerria Eleizatikan	Zuzendaria: Junkal Gascon Hitza eta musika : Pablo Sorazabal Hitza eta musika: Herrikoia
10-	SURBESTA Loreak udan ihintza bezela Agure zaharra	Zuzendaria: Ander Ribes Hitza: Bilintx/Musika: Txomin Artola Hitza: Xabier Lete/Musika: Lluís Llach



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxes: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Erdi Aroko azokako argazki lehiaketa antolatu da

Hondarribiko Udaleko Merkataritza eta Turismo Sailak Hondarribiko 2008. urteko "Erdi Aroko Azoka" argazki lehiaketa antolatu du. Bertan edonork parte har dezake. Ekainaren 14an eta 15ean ospatuko da eta ordutegia honako hau izango da: larunbatean, 12:00etatik 21:00etara, eta igandean, 11:00etatik 21:00etara.

Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean, eta partaide bakoitzak gehienez lau argazki aurkez ditzake saritu edota argitaratu gabek, eta neurria 20 x 30 cm-trokoa izan beharko da. Lanaren atzealdean izen bat idatziko da eta horrekin batera datorren kartazal itxiaren kanpoaldean, aurkeztutako lanaren edo lanen izen berdinak.

Kartazalaren barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, NANren fotokopia eta telefonoa idatziko dira.

Lanak norberak eramanda edo postaz nahiz mezulari bitartez bidalita honako helbide honetara eraman ahal izango dira:

Hondarribiko Udala- Kultura Departamentua
Pampinot kalea, 12-14 - 2. solairua
20280 Hondarribia

Egileak gutunazalean adierazi beharko du "2008 - Erdi Aroko Azoka Argazki Lehiaketa", 2008ko uztailaren 4ko 13:00 orduak baino lehen.

Hiru sari egongo dira. Lehena 500€koa, bigarrena 400€koa eta hirugarrena 300€koa



lazko azokaren irudi bat.

Ostalarien elkarteko zuzendaritza berria udal ordezkariekin bildu da

Aitor Kerejeta alkateak eta Maite Pelaez Merkataritza eta Turismo zinegotziak lehen bilera burutu dute Hondarribiko Ostalarien Elkarteko zuzendaritza berriarekin. Bere buru bezala, Miguel Soto presidentea izan da Udaletxean.

Zuzendaritza berriarekin egindako bilerak ia ordu eta erdi iraun du. "Udalarekin eta beraiekin erlazionaturiko zenbat gaitan koordinatzea ezinbestekoa dela ikusi dugu. Hortaz gain, koordinazio hau Merkatarien Elkartearekin batera burutzea egokia ikusi dugu, denok bide bera jarraitzen badugu emaitza hobeak lortuko ditugu eta" dio Aitor Kerejetak, Hondarribiko Alkateak.

Hortaz gain, beste zenbait gai jorratu dira: uztailaren erdialdera ospatuko den Blues Jaialdia, Hendaia eta Hondarribia itsasoz lotzen dituen ontziaren kontua, eta tabernen itxiera ordutegia ere. Amaitzeko, ostalariek TAO txartel bana edukitzeko aukera luzatu diote Alkateari, merkatariek dauzkaten baldintza berdinetara heltzeko.

"Ostalariekin Hondarribiak bizi duen egoeraren analisi oso antzekoa egin dugu" gehitu du Kerejetak. "Hiriko bizilagun elkarte eta asoziazioekin egin dugun bezalako bilera burutzeko ideia luzatu diet. Begi onez ikusi dute eta datozen asteotan burutuko dela esan dezaket".



Ostalaritza elkarteko eta Udaleko ordezkarien irudi bat

Hondarribia Dantzan arrakastatsua ospatu da

Hondarribia Dantzan-en bigarren ekitaldia ospatu berri da eta eguraldia lagun, guztia primeran atera zela esan daiteke. Asteburuko ekintzei ostiralean Jose Inazio Ansorenak emandako hitzaldiarekin eman zitzaien hasiera. Ansorena bezalako erreferentziatzeko pertsona Hondarribira etortzeak duen garrantzia agerian geratu zen udaletxeko areto nagusiak izandako itxurarekin. Aulki hutsik ez eta jendea adi-adi eta askotan irrifarra ahoan izan zen ordu bete pasatxoan zehar.

Tradizioaren balioez jardun zuen Ansorenak, entzuleen artean gogoe-tarako eta eztabaidarako hainbat atal jorratuz.

Igandean berriz, Hondarribia Dantzan-en gainontzeko ekitaldiak burutu ziren. Goizean, Euskal Herriko hainbat herritatik etorritako hiru dantza taldek Hondarribiko kaleak alaitu zituzten. Herrian zehar hainbat puntutan dantzatu ondoren, eguerdiko 12:30etan dantza saio nagusiari hasiera eman zitzaion S. Maria Madalena plazan.

Baigorriko Arrola dantza taldeko kide gazteek Behe-Nafarroan oso eza-gunak diren hainbat dantza eskaini zituzten. Tartean makilariaren trebetasuna aipagarria izan zelarik.

Lantziegotik Sebastian Iradier eta Salaverri dantza taldeko kideak etorri ziren. Hauek Arabar Errioxako hainbat makil joko eta jota dantzatu zituzten gaita soinu indartsuz lagundurik.

Azkenik, Berako herritarren txanda izan zen. Alaitasun eta animoz gainezka Iñude eta Artzainen konpartsa eskaini zuten, goizeko ekitaldiei amaiera emanez.

Arratsaldean berriz, Imuntzo eta Belokiren taldeak eskainiriko erromeria biziak, S. Maria Madalena plazara hurbildutako jendea dantzan jarri zuen, asteburu bikainari amaiera ezinhobea emanik.



Dantzari talde bat ekitaldia hasi aurretik.

Aise
Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

"HONDARRIBIAK AUSARTA IZAN BEHAR DU GAINONTZEKO HERRIEKIN LEHIATU AHAL IZATEKO"



Miguel Soto, Ostalaritza elkarteko presidente berria

Miguel Soto Dorrosez da Hondarribiko Ostalaritza Elkarteko presidente berria. Pasa den apirilaren 22an hautatua izan zen Monica Sunsundegiren ordeiz. Sebastian jatetxeko arduraduna, jakin dezagun zerbait gehiago berari buruz.

39 urte ditu eta ezkontuta dago. Ostalaritzarekin izan zuen lehen kontaktua 14 urterekin izan zen, Donostiako Sukalde eta Ostalaritza Goi Eskolan sartu zenean. Ordutik aurrera, ikasketa eta praktika desberdinak uztartzen hasi zen jatetxe desberdinetan, Gipuzkoa, Madril, Katalunia eta Mallorcan adibidez. 1988an Sebastian jatetxearekin kontaktuan hasi zen eta langilegoan sartzeko aukera izan zuen. Jatetxe honen estiloak eta ostalaritzak Hondarribian duen egiturak, bere etorkizuneko planak Hondarribitik mugitu gabe antolatzen bultzatu zuten.

2004. urtean iritsi zen jatetxearen zuzendaritza hartzeko ardura. Aro berri bat hasi zen orduan, sukaldari eta enpresari bezala orduan. Hondarribiko bizitza eta bizimodua asko maite ditu, eta bereziki Alde Zaharra. Argazki zaharren bilduma zabal bat dauka hori ziurtatzeko, ia bi mila.

PANADERIA - OKINDEGIA
ARRATIBEL



" EGURREKO LABEA "

Barrio Mendelu - C/ Zubieta, 12
Telf: 943 64 19 75 - HONDARRIBIA



Cafetería - Restaurante
faro de higuera

PLATER KONBINATUAK - EGUNERO MENUA
ARRAINAK - HARAGIAK

Carretera del Faro, 58 - Teléfono 943 64 01 94
20280 HONDARRIBIA

Nola izan da presidente hautatua izateko prozesua?

Asanblada orokorrak bete behar diren prozedurak jarraitu dira. Egia esatea nahi baduzu, ez nuen espero. Pozik nago elkarteko kideek ni hautatu izana kargu honetarako eta ahal dudana egiten saiatuko naiz.

Elkarteko presidentea bezala zer da egin duzun lehenengo gauza?

Egin nuen lehen gauza Elkarteko beste bazkideekin elkartzea izan da, eta nola ez, nire aurrekari den Monica Sunsundegirekin, bere iritzia jakiteko eta aurrerantzean gauzak nola egin behar ditugun ikusteko. Noski, mahai baten inguruan egin genuen, hori oso ondo baitakigu. Hurrengo gauza, behar guztiak betetzen hastea da.

Epe laburrera zeintzuk dira daukazuen helburuak?

Helburu nagusia Elkarriak daraman dinamikarekin jarraitzea da, orain artean egin den lana bikaina izan baita. Ondoren egokia izango litzateke Hondarribian beharrezkoa den gaueko giro egoki baten aldeko akordio bat lortzea, hutsune hori dagoela pentsatzen baitut. Erabiltzaileei garraio publikoa ere ziurtatzea beharrezkoa



Miguel Soto, elkarrizketaren une batean

litzateke, gure sektorearentzat garrantzitsua den zerbait da eta. Honen inguruan, taxietan, Hendaiara doan ontziaren garraioa, gaueko autobusa... gauza asko daude egiteko.

Udalak merkataritza indartzeko egitasmoa onartu berri du. Zer esan dezakezu honen inguruan?

Lankidetzaz ezinbestekoa da eta gehiago Udalaz ari bagara. Erlazio ona mantentzen dugu eta honen inguruan, esan behar da merkataritza berpizteko egitasmo honek asko lagunduko digula guztioi. Guztiok behar dugu eta ia dena ongi ateratzen den.

Zenbat bazkide zarete Elkartean?

Une hauetan 60 bazkide gara Elkartean, sektoreko kategoriaz guztietan banatuak. Gure helburua, kide gehiago izatea da eta zentzu horretan emango ditugu urratsak.

Zeintzuk dira zure ustez Elkarriak orain artean izandako lorpen handienak?

Nire ustez, oso garrantzitsua da Elkarriak logo bat sortu duela eta jendeak logo horren bidez ezagutzen gaituela. Hau ezinbestekoa izan da Dastamena 800, Hondarribiko Baratzak eta beste zenbait ekimenek arrakasta izan dezaten.

Hondarribiak gauza asko al ditu erakusteko oraindik?

Hondarribiak daukan gauza onenetako bat inoiz bukatzen ez dela da. Bisitariak hori esaten du, eta bertan bizi denak, Hondarribiak dituen gauza guztiak aurkitu nahi izango balitu, ziur sorpresa ugari izango zituela.

Kostako beste zenbait hiriekin pareka gaitzek?

Edozein kostako herriarekin parekatu gaitzek, potentzial handia dauka Hondarribiak. Falta zaiguna, guk sinistea da, eta beste herriak bezain ausartak izatea aurrera egiteko.

podologo

Unai Ortiz

kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10, 2 bajo
20.280 HONDARRIBIA

Tel: 943 111 946
www.unaipodologo.com

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.690 €

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia

Beroarena kendu...

Esaerak eta esaldiak, gizatalde jakin baten izaerak eta pentsamoldeak adierazten dituzte. Jatorriz itsatsiak geratu zitzaizkigun esaera horietako asko, gaur egungo egoera bereizien ezaugarri edo sinbolo bihurtu zaizkigu. Baserriko biziera eta lanbidean hazi naiz ni. Besteak beste, abeltzaintza ogibide genuen hartan, esaera bitxi bat geratu zitzaidan buruan. "Beroarena kendu".

Abeltzainak, nere aitak hain zuzen, txahal bat saltzen zue-nean, hiltokian bizia kentzen ziotenaren ondoren, pisuari begiratzea zetorren. Batzutan "begira" saltzen zen hazien-da; beste batzuetan "bizi-pisuko" eta gehienetan hil ondo-rengo pisu-neurrietara.

Gertatzez gertatu, gertatu ere gertatzen zen, abere-jabeak etxera itzuli behar, eta, arratsaldera arte ezin egon pisua ikusteko. Haragiak hoztu egin behar izaten zuen, eta ozte-denbora horretan pisua galdu egiten zuen, hau da, pisua bere onera etortzen zen. Orduan, hil eta berehala pisatzen zuten, baina pisua jeistearen truke.

"erraldea" izan ohi zen pisuen neurria, eta galduko zukee-naren arabera, erralde bakoitzeko "honenbesteko bat" kentzen zitzaion. Esan beharrik ez dago, beti eroslearen aldera erortzen zen irabazia. Horri deitzen genion "beroarena kentzea".

Jokabide jator honek bere aldetik, besoak beste alorretara luzatu ditu eta besteak beste, bi alor hauek aipatuko ditut: bata, ehiztariak.

Betidanik dugu ehiztariok, ahoa gehitxo zabaltzearen fana. Ongi irabazitako fama, inondik ere. Ehiztarien artean, nekez etorriko zaizu bat, porrotaren osotasunean bere bizkarrean dakarrela. Gutxiari ugaritasuna ematea harrigarria baldin bada, hutsari betetasuna emateak ere baditu bereak. Bi txori bota dituenak, hamarretik gora izango ditu astindu eta

galdutakoak. Horregatik, "ahobero" esan izan zaie, bere indar guztiak mingainetik ihes egiten dietenei.



Martin Iturbe

Ehizerako zaletasuna ahogozatu ez duenak, entzundako guztia gezur-zakura botatzen badu ere, tartean haizetaratu-tako egi borobilen baliotasuna ez du ezagutu nahi izaten. Ezinezkoa da horrelakoetan, batzuen eta besteen arteko elkarriketa.

Bestea hala ere, ehiztariak alde batera utziz, beste alor bat aipatu nahi nuke. Benetan, "beroarena" kendu beharreko alorra, "politikarien" alorra.

Ahoberorik inon bada, talde horretan aurkitzen da. Gure belarriek entzuten dutenari, beroarena kendu behar balitzaio, eta esana izan denaren mamia bakarrik "albiste" balu, egunoroko aldizkariak zurtasunez beteta jaso behar-ko genituzkela uste dut.

Hau esan beharra eta ezin isildua politikariena! Ezinezkoa dela dakigun hura ere, hitz-palastaz ahoberotua eskeintzen zaigu. Esan beharraren esanak, esaten ari den hura egia dela sinisterra darama esataria, nahiz eta, gauza bera beste baten ahotan, gezurtzat salatu, inolako mingain-dardararik gabe.

Abeltzainarekiko ohitura egokitza hartzea ez derizkiot buru-gabekeria denik, izan ere egiaz, denborarekin okelak "bero-arena" galdu egiten baitu. Ehiztariarena barkatzekoa da, ilusioak bere pisua baitu. Politikariena onartezina deriz-kiot, ahoberoak "berotu" egiten baitu egiaren zelaia, gezu-rraren plastaz.

Beroarena kendu...ea zer gertatzen den...



TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12



kai zahar



ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA



AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia

Hondarribiko ordezkaritza bat Eusko Legebiltzarrak sare konpontzaileei egindako harreran izan da



Ezkerretik eskubira, Emazabel. Goikoetxea, Susperregi eta Kerejeta

Eusko Legebiltzarreko presidentea den Izaskun Bilbao Euskadiko Sare Konpontzaile, Neskati eta Arrain Paketatzaileei harrera ofiziala egin zien Gasteizen. Emakume talde hauen lanbidea aintzat hartzeaz gain, 2007ko abenduaren 1ean sinaturiko Ondarroako Aldarrikapena jaso zuen Eusko Legebiltzarrak.

Dokumentu honetan, gizartearen aurrean Baxurako Euskadiko Sare Konpontzaile eta Neskaten Elkarteak eta Ondarroako Neskaten eta Paketatzaile Elkarteak, beraien jardura aintzat hartzea, lanbidea ere ikusia izatea, eta egoera soziorabiala hobetzea aldarrikatzen da.

Ekitaldian Hondarribiko delegazio bat izan zen, Aitor Kerejeta alkateak, Norberto Emazabel abad nagusia eta Pilar Goikoetxea eta Ines Susperregi sare konpontzaileek osatuta. Hauetaz gain, Gonzalo Saenz de Samaniego Nekazaritza eta Arrantzako Sailburua eta Luis Miguel Macias, Eusko Jaurlaritzako Arrantza Zuzendaria izan ziren.

"Gure arreta eta errespetua merezi duen kolektibo bat da" dio Kerejetak. "Etengabe isilean lan egiten dute eta beraiek gabe, arrantzaleek ezingo lukete itsasora atera. Ekitaldi hau ezagupen modura oso baliotsua izan da".

CARROCERIAS AMUTE



Fundada en 1968

Reparación general del automóvil

**Bº Mendelu
c/ Amute Alde, 19**

**Tel./Fax: 943 64 11 41
20280 HONDARRIBIA**

K21

KALITATEA

Certificado de calidad K-21
K-21 kalitatearen zihurtagiria

Empresa Registrada
N.º 1 / 05 / 132



PINTURAS TXINGUDI MARGOLANAK



Cabina de lacado
Restauración de fachadas
Trabajos interiores

Pol. Industrial Txiploa, 28 • 20280 HONDARRIBIA
Telf./Fax: 943 647 344
e-mail: txingudi@telefonica.net

San Isidro egun bikaina ospatu dute nekazariak

Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna dela eta, ekitaldi ugari antolatu ziren aurten ere Guadalupen.

Egun osoan zehar elikadura azoka izan zen. Goizeko 11:00etan hasi zen prozesioa, eta ordu laurden geroago meza Guadalupeko Santutegian. Amaitutakoan, urte askotan San Isidro egunean lagundu duen Juanito Gonzalez eskertza egin zitzaion. Eguerdi aldera, bertsolarien txanda iritsi zen, Aitor Mendiluze eta Beñat Lizaso izan zirelarik aurten etorri diren gazteak.

Jarraian herri bazkaria izan zen Guadalupeko Kantinan. 17.00etan Errosarioa errezatu zen Santutegian eta arratsaldeko 17.30ean berriz ere bertsolarien txanda heldu zen. Amaitzeko, herri jokoak antolatu ziren, aizkolari, harrijasotzaile eta sistema tradizionalen aritu ziren harri-zulatzailen ikuskizunak egon zirelarik.



Prozesioaren une bat, Santutegitik atera ondoren



Mendiluze eta Lizaso izan dira bertsolariak



Alfonso Pey apaiza, lurak bedeinkatzen

Aspaldian egiten zen bezala erromeriak berreskuratu dira

Maiatzaren erdialdera Euskara departamentuak erromeria bat antolatu zuen Alamedan. Arratsaldean hasi zen 18.00tan eta parte hartu zuten taldeak Auntxa Trikitixa Eskola eta Irungo Musika Eskolako ikasleak, Hondarribiko Musika Eskolako Trikitixa Taldea eta Orots taldea izan ziren.

Jaigiro ezin hobean ospatu zen, eta asko izan ziren bertaratu ziren herritarrek dantza egin eta ongi pasatzera. Ixabel Olazabal Euskarako zinegotziak esan bezala, "jendeari parte hartzea eskatu genion, aspaldian Alamedan horrelako erromeriak egiten baitziren eta egokia iruditu zaigu berreskuratzea. Aurrerago beste bat antolatuko dugu".



Sendabelarren inguruko liburua aurkeztu da

"Sendabelarren erabilera Hondarribian"

argitalpenak desagertzeaz dagoen unibertso kultural bat berreskuratu nahi du

Udaletxeko Areto Nagusian aurkeztu da gaur goizean "Sendabelarren erabilera Hondarribian" izeneko liburua; bertan izan dira Pío Perez Aldasoro egileetako bat (Jose Mari Iraola zenarekin batera), Gregorio Berrotaran, Landa Garapeneko zinegotzia, eta Pedro Sagarzazu "Tximista", argitalpenaren bultzatzaileetako bat.

Berrotaranek esan duenez, "Hondarribian gehien erabiltzen diren 25 sendabelarren berri ematen da alde batetik, eta hortaz gain, belar hauekin senda daitezken hainbat gaixotasun zehazten dira, baita nola sendatzen diren ere".

Pío Pérez Aldasoro da liburuaren egilea Jose Mari Iraolarekin batera. "Galtzeko arriskuan dagoen unibertso kultural bat berreskuratu nahi izan dugu, osasuna eta sendabelarren inguruko kaleko ezagutzena hain zuzen ere. Ezagutza hauek bildu eta argitaratu nahi izan ditugu liburu honen bidez, eta nola ez, bere bizitza osoan zehar gai honetan aritu diren pertsonen omenaldi txiki bat egitea, kasu honetan Pedro Sagarzazuri egin diogun bezala".

Azkenik, Pedro Sagarzazuk esan duenez "belar hauek betirako ez galtzeko urratsak behar dira. Eraikinak eta errepideak behin eta berriz egiten ari gara, oso garrantzitsuak direnak. Hala ere, horrek ez liguke sendabelar hauek duten garrantzia estali behar. Nik nire 83 ute hauetan ikasi dudana kontatu dut, bai nire aldetik ikasitakoa, kontatu didatena eta praktikatu ahal izan dudana".

Denetara 500 ale argitaratu dira; 10 eurotan jarri dira salgai herriko liburutegietan.



Berrotaran, Sagarzazu eta Perez Aldasoro

mandragora^{studio}

t. 943 644 639 m. 629 564 723
unai.mandragorastudio.com
www.mandragorastudio.com
matxin de arzu 14 20280 hondarribia

eukeniopтика

optiko - optometristak

San Pedro, 57.

20280 Hondarribia - Gipuzkoa

943 643 805

Plan Orokorra idatziko duen Aholku Kontseilua osatzeko lehen bilera ospatu da

Hondarribiko Udaleko Areto Nagusian ospatu zen hiriko Plan Orokorra idatzi beharko duen Aholku Kontseilua osatzeko lehen bilera. Kontseilu hau izango da datozen hamar urteetako Hondarribia nola izango den definitzeko ardura izango duen erakundea.

Ekitaldian hiriko hainbat kultur eta kirol elkarteetako ordezkariak izan ziren, baita Udalekoak ere, Aitor Kerejeta alkatea, Ion Elizalde eta Juan Mari Altuna alkateordeak eta Gregorio Berrotaran zinegotzia ere. Aurretiaz Udaletik erroldatuak dauden dauden elkarte guztietara bidali zen bilerara hurbiltzeko gonbitea.

"Bilerak aurretik Osoko Bilkurak onartu zuen Hondarribiko Udal Planeamenduko Aholkularitza Kontseiluko araudiaren berri emateko balio izan du" esan zuen Aitor Kerejeta Alkateak. "Araudi honek gizartearen partehartzea sustatuko du, ondare historikoa eta hiriaren garapen sostengarriaren alde lan egingo baitu".

"Udaletik" jarraitu zuen Alkateak, "normaltzat jotzen dugu hiritarraren partehartzeari

bideak irekitzea. Eta hau, gure Hondarribiaren etorkizuna zein den finkatzea, agian garrantzitsuena izan daiteke, ezinbestekoa bait zaigu hiritarraren iritzia jakitea. Atzo Plan Orokor bat zer den eta Aholku Batzordeak zer egin behar den azaldu genuen. Orain, hurrengo urratsa Batzorde horretako kide zeintzuk izango diren zehaztu egin behar da". Amaitzeko, Kerejeta alkatea Gobernu taldeak legealdi honetan dituen proiektuak aurkezteko bere burua aurkeztu zuen, hiriko elkarte desberdinekin orain artean egin duen bezala.



Hogei elkarteetako ordezkariak joan ziren lehen bilerara

ILEAPAINDEGI MISTOA

LAIDA

San Pedro Kalea, 71 - behea
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 64 13 59
(Aurretiaz ordua eskatu)

Ireki Berria !
Ireki Berria !

MA SAI

estetika
masai
zentrua

Irantz Arriabarrena

San Pedro 30 20280 HONDARRIBIA
(sarrera Zuloagatik/entrada por Zuloaga)

t 943.646.320



Hiru ikastetxeetako ikasleek bisita egingo dute Arrantzaleen Kofradiara

Arrantzak herrian suposatzen duena bere begiez ikustea bilatzen da

ARRANTZALEEN KOFRADIAN APIRILEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 2.446,90 kilo.
Sardina (*Sardina pilchardus*): 203.553,70 kilo.
Berdela (*Scomber scombrus*): 798.493,10 kilo.
Dorada edo Urraburua (*Sparus aurata*): 2,70 kl.
Boga (*Boops boops*): 129,90 kilo.
Zarakuntza (*Oblada Melanura*): 13,30 kilo.
Erla (*Lithognathus mormirus*): 606,00 kilo.
Makarela (*Scomber japonicus*): 1.004,90 kilo.
Korrokoia (*Chelon Labrosus*): 39,30 kilo.
Muxar handia (*Diplodus sargus*): 1.229,90 kilo.
Bestelakoak: 29,30 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)



Ixabel Olazabal eta Norberto Emazabel

Hondarribiko hiru ikastetxeetako ikasleak datorren astean Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiara hurbilduko dira gida-tutako bisita bat egitera, arrantza zer den bere begiekin ikusi dezaten, ez bakarrik arraia harrapatzea, baia sare konpontzaileak eta gelarekin egiten den lana ere.

Ekimena Kofradia eta Udaleko Hezkuntza departamentuaren artean burutu da, eta ondorioz, maiatzaren 27an Talaiako Lehen Hezkuntza-ko seigarren mailako ikasleak, eta bi egun geroago San Jose eta Ama Guadalupekoako ikastetxeetakoak, Ramon Iribarren pasealekuan dagoen instalakuntzetara hurbilduko dira.

Hezkuntzako zinegotzia den Ixabel Olazabalek ekimena "oso interesgarritzat" jotzen du. "Kofradia gurekin kontaktuan jarri zen, eta gure aldetik pausuak eman ditugu haurrei eta ikastetxeei bertara hurbiltzea errezteko. Horrela, arrantzak Hondarribian zer suposatzen duen ikusi ahal izango dute".

Norberto Emazabel abad nagusiaren hitzetan, "beharrezkoa da horrelako ekintzak egitea. Arrantzak historia handia du gure herrian, nortasunaren zati bat da. 'Bertoko' gero eta arrantzale gutxiago ditugu eta pena litzateke gure herriko gazteek ezer ez jakitea, eta Kofradiara etorri eta atuna zer den, berdela, arrantza tradizionala, sare konpontzaileak... Zerbait polita eta beharrezkoa da. Gainera, bideo bat erakutsiko diegu".

Lan eta saria ikasleentzat

Bisitan parte hartzen duten ikasleek lan bat egin beharko dute. Ondoren, ikastetxe bakoitzetik bost lan hautatuko dira irabazle bezala, eta hamabost garaileek hegaluze bat jasoko dute sari bezala.



DON MARTIN ITURBE BALDA

APAIZGINTZAKO URREZKO EZTEIETAN

Doinua: "Mutil koskor bat...".



Jexux Mari Mendizabal

- 1** Mila urte eta bederatziehun
hogeita hamabigarrena,
Martin Iturbe Baldak berakin
jaiotzatik dakarrena.
Ikaztegitan Muno etxeko
senidetako zaharrena,
bikariotzan fin aritua
Hondarribian barrena...
Graziak ditu merezi eta
eman zaizkagun aurrena!
 - 2** Diferenteak izaten dira
gozoak eta gaziak,
horregatikan lurrez aldatu
izan ohi dira haziak.
Muno, Gasteiz, Donosti, Lourdes
eta Alegi pasiak,
gurean luzaz landatu dira
Don Martinen ikasiak:
ondotxo ditu merezi eta
eman zaizkagun graziak!
 - 3** Lan eta otoitz, isilean latz,
jator-oparo zen hezi:
hainbeste dohain ezin zaizkio
doan eskatu Lourdesi.
Zenbait pertsonen itzal azpian
ez ote daude berez bi?
Gizon apal on, apaiz baketsu,
hoberik ezin berezi...
Eman zaizkagun gure graziak,
ondotxo ditu merezi!
 - 4** Poesian du hainbeste sari,
etxean ezin kabituz;
eta hizlari bezala, berriz,
inork bezainbat meritu.
Haren mezetan izan ez denak
badu nahikoa delitu,
hitza ez du-ta Don Martinena
ezti-gozotan aditu.
Eman zaizkagun gure graziak;
ondotxo merezi ditu!
 - 5** Hondarribiko bikarioa
beti zerbitzuko teman,
bai baserriko sukaldean ta
bai arrantzaleen leman.
Laguntzarako premizko deia
zein bazterretan antzeman,
nahiz goizean goiz, nahiz gauerdian,
prestu ohi dugu atzeman...
Ondotxo ditu merezi eta
graziak zaizkagun eman!
 - 6** Gutxi-gutxika asko egiten
omen da, eta demagun
kontu egiten dugula zenbat
urte ote daramagun...
Duela hogeita eta hamazazpi!
dago Don Martin ezagun;
Hondarribiko kristau eliztar
hamaika egin du lagun...
Ondotxo ditu merezi eta
graziak eman zaizkagun!
- * Edozein txorik maite du bere kabia: ez da jolasa!**
Don Martin ere bere etxera erretiratzen da lasa.
Eztitzen zaio bihotza eta eztiagotzen solasa,
hango bi perla dituelako bizi-pozaren arnasa.
Mila zorion zuentzat ere, Maritxu eta Tomasa!
- ** Zahartzarora ez dator soila; beti zerbaiten tenore.**
Zure kasuan, berrogeita hamar urte apaiz-erretore!
Beraz, URREZKO EZTEIAK aurten apaizgintzaren fabore.
Hondarribiak omenaldia prestatu dizu dotore:
bejondeizula, Don Martin Haundi, aintza zuri ta ohore!!!
- Jexux Mari Mendizabal "Bizargorrik"**
Don Damasoren laguntzarekin jarriak.
HONDARRIBIAN, 2008ko maiatzean

EXPERT
GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

Espainiako Armada garaitezinean Hondarribiarrak lehiatu ziren

Jose Ignacio Tellechea Idigoras zendu berriak liburu batean zenbatuak zituen gipuzkoar denen izen eta abizenak



Koldo Ortega

Espainiako historia oso zabala eta oparoa da. Mende askotako gora-beherak, nagusitasunak eta porrotak, matxinadak eta iraultzak... denetik ikus dezakegu behin aztertzen hasita. Horietako atal ilun bat XVI. Mendearen amaieran gertatutakoa da. Armada Garaitezina edo "Armada Invencible" deitu izan zena-ren porrota.

Felipe II Espainiako erregeak Tajo ibaitik abiatuta, sekulako itsas armada bidali zuen Ingalaterraren aurka lehiatzera. Bere helburua, Isabel Tudor erreginaren erreinua garaitu, eta Enrique VIIIaren alaba zena desagertu ondoren, katolizismoa bertan ezarri. Hasera batean garaitezina zirudien bidaiak, uste baina porrot handiagoa jasan zuen, eta ehundaka izan ziren hildako soldadu espainiar eta euskaldunak.

Duela gutxi gure artetik desagertu den Jose Ignacio Tellechea Idigoras apaiza, historialari eta euskaldunok hainbeste zor diogu gizonak azterketa sakona egiten du gerrate honi buruz. Euskaldunek Armada honetan izan zuten garrantzia aztertzen du, eta azterketa hori haintzat hartuta, guk Hondarribiko semeek orduan izan zuten lana goraipatuko dugu.

Euskal Herriak garai guztietan izan dituen hiruzpalau historialari oparoenetako bat Tellechea Idigoras. Galera handia, inondik ere, baina irabazi paregabea bere bizialditik utzi digun uza. Hitz gutxitan laburtzeko: donostiarra, apaiza, historialaria, gipuzkoarra eta unibertsala izan da Jose Ignazio.

Donostiako Gipuzkoa plazan jaio zen Telletxea (1928), eta sorterri honek aparteko pisua izan du beraren ikerkuntza eta sustapen lanetan. Ikuspuntu horretatik esan daiteke Telletxearen bizitzak bere geografia intelektuala izan duela: Nafarroako Ituren, Donostia historia, Erromako Artxiboak eta Salamancako eliz Unibertsitatea.

Ibilera luzeko zereginak hartu ditu bere gain, hemen bezala atzerrian. Donostia eta Salamanca dira batik bat iraupen horren lekuko. Gai eta alor ezberdinak ukitu ditu, baina leialtasun ardatz nagusiak ez ditu galdu sekula: Gipuzkoa, XVI. mendea, Eliza, euskaldunen erbesteak, etab. Dozenaka liburu eta ehunka artikulua (1949...) dira Telletxea Idigorasen lumatik ateratakoak, eta jada egindako bibliografian ikus daitezke (1983).

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba



Liburuaren azala.

Hamaika hondarribiar

Berak idatzitako "Otra cara de la Invencible: la participación vasca" liburuan aurki dezakegu duela lau mende baina gehiago orduko Armada hartan parte hartu zuten hondarribiarren zerrenda. Lan mardula eta sendoa, bertan irakur daiteke nola 503 izan ziren hildako gipuzkoarrak. Horietatik 9 dira hondarribiarrak, 11 Oriokoak, 27 Irungoak, 38 Errenterikoak, 36 Oiartzungoak, eta hildako gehien dituenak, 127, Donostia. 500 hauetatik 200 Lis-

boan hil ziren, hospitalean. Egileak dioenez, tifus-aren ondorioz.

Jarraian gehitzen dugun zerrendako pertsonak dira hildako hondarribiarrak:

- Miguel de Arandibar
- Joan Martinez de Olozaga
- Christobal de Belco Ibañez
- Beltran de Mendiando
- Martin de Aduna
- Sebastian de Oyanguren
- Tomas de Palermo
- Miguel de Echalar
- Martin eta Joanes Casanueva
- Pedro de Justiz

Bizirik irten zirenen artean, eta gero artxibategietarako oso baliagarria izan zen informazioa eman zutenak Pedro

Saenz de Ugarte eta Migel de Mengabar izan ziren.



Jose Ignacio Tellechea Idigoras zenaren argazki bat

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

MARINEL



Ana Lupe
Iridoy Amunarriz

Guztiek noizbait galdetu didate:

"Zer izan nahi duzu handitan?"

"Marinel" erantzuten diet.

Ez diet haien aurpegi arraroei kasurik egiten,

izan ere badakit ez didatela ulertzen.

Itsasertzera joan ohi naiz mila bider

olatuak baititut oso kuttunak,

baita Itxaso-usain gozoa ere

eta bertako haize bolada leunak.

Baina ez dut marinel soil bat izan gura,

baizik eta zure itsasoetako marinel,

zure ametsetako marinel.

Ametsetan zeharo murgildu

zurekin nagoela amesten,

biok bakarrik gaude,

guztia alboan utzita

ilargia zeharkatzen,

izarrak zeharo areagotzen,

gurea den mundu berri bat sortzen.

Zureganako sentimendu hau,

Inola espresatzerik.

Badakit zuk zeuk ulertzen duzula nire isiltasuna,

nire zureganako maitasuna,

zer esanaren ezjakintasuna.

...Eta itsasoan jarraituko dugu

lastertasuna sentituz...

...Eta gaua itzarririk igaroko dugu

gure maitasuna libratuz...

zure begirada goxoa miretsiz...

gure desioak egia bihur daitezen desiratuz...

Nire ametsetako pirata,

zuri entregatzen dizkizut

nire hitz, sekretu eta

nire barneko milaka sentimendu apartak.

Ana Lupe Iridoy Amunarriz.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Bioterra ospatuko da Ficoban ekainaren 6tik 8ra

Bioterrak, Produktu Ekologikoen, Bioeraikuntzaren, Energia Berriztagarrien eta Kontsumo Arduratsuaren Azokak, aurtan, bosgarren edizioa du, eta horretarako, ekimen berriak sartzen ari da jarduera paraleloen ohizko programa zabalean.

Azkeneko edizioan, 2007koan, Bioterra hazi egin zen parametro guztietan. %7 igo zen bisitari-kopurua; %12 erakusketa-azalera, eta hazi egin zen eskaintza ere, Osasun eta Ongizatearen Naturall Gunea sartuta. Bioterraren erakusketa paraleloa da Naturall, eta honako sektore hauek ordezkatzan ditu: kosmetika eta higie-ne naturala, ehungintza eta osagai naturalak, habitat osasungarria, terapia naturaletarako osagarriak, ekoturismoa eta erremedio naturalak. Eta aurtan, berriz egingo da Bioterrarekin batera.

Bioterraren V. Edizioak ekainaren 6an, ostiralarekin, irekiko ditu ateak. Inaugurazio ofizialeko buru izango dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburu, Gonzalo Saenz de Samaniego, eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko presidente, Tomas Larrañaga.

BIOERAIKUNTZA

- Bioeraikuntzako Espainiako Elkarte.

www.ae-bioconstruccion.org

- **GEA** (Ikerketa Geobiologikoen Elkarte). Irabazi asmorik gabeko elkarte, nazio eta nazioarteko mailakoa. Osasunarekin, habitatarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gai guztiak aztertuta, aholkatu eta dibulgatzen ditu. Etxebizitzaren inguruko giza osasunerako arrisku-faktoreak aztertuta eta konpon. www.gea-es.org/

- **Lastozko eraikuntzaren sarea.** www.casasdepaja.com

ENERGI BERRIZTAGARRIAK

- **ADEME** (Frantziako gobernuak Ingurumena eta Energia Agentzia). www.ademe.fr/

- **AGORES** (A Global Overview of Renewable Energy Sources). Energia berriztagarriei buruzko Europako informazio web zabalean. www.agores.org/

- **ATG - ARGITA GARBI** (Euskadiko Energia Berriztagarrien erabiltzaileen elkarte). www.argitagarbi.com/

- **E.E.E.** (Energiaren Euskal Erakundea) www.eve.es/

- **IDAE** (Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutua). "Financiación" eta "Ayudas" atalak ikusi.

www.idae.es/

INGURUMENA

- **TIERRA FUNDazioa.** Ingurumena zaintzeko beste pizgarri batzuk emateko fundazioa. www.terra.org/

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

- **BIO D'AQUITAINE** (Aquitaniako Nekazari Ekologikoen Federazioa). www.bio-aquitaine.com/

- **EKONEKAZARITZA** (Nekazaritza Ekologikoen Euskadiko Federazioa) www.ekonekazaritza.org

- **FNAB** (Frantziako Nekazaritza Ekologikoen Federazioa). www.fnab.org/

- **IFOAM** (Nekazaritza Ekologikoen Mugimenduaren Nazioarteko Federazioa). www.ifoam.org/

- **ISOFA** (Nekazaritza Ekologikoen Ikerkuntzarako Nazioarteko Elkarte). www.isofar.org

- **SEAE** (Nekazaritza Ekologikoen Espainiako Elkarte). Hiritar elkarte pribatua da, eta nekazariak, teknikoak, zientzialariak eta bestelakoak biltzen ditu, nekazaritzako sistema sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki iraunkorrak garatzeko ahaleginetan jarduteko. www.agroecologia.net/



- **SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €**

2+1 dohainik eta 7+5 dohainik

- **ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €**

1+1 dohainik

- **LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrrrik gabe 1l:**

3,65 €

1+1 dohainik eta 6+7 dohainik

- **ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €**

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

- **BIOCOP intxaurrak 300 gr: 5,35 €**

%50 unitate

- **RAPUNZEL txokolate-intxaurrak, olo muesli**

350 gr: 5,40 €

1 + 1 dohainik

- **SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €**

1 + 1 dohainik

- **SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €**

3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik

- **Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:**

3,95 €

3 + 1 dohainik

Arreta pertsonala

iHondarribian!

txuntxumela.
zure **SUPER BIO**

ETKEZ ETKEKO ZERBITZUA
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

0943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

biotxuntxu@terra.es

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



TERRA SIGILLATA

Terra Sigillatakiak dakarzkigu liburu honek. Bizi dugun ingurune gordin, nabar zalantzakor eta euskorren puska.

(A)Saltus Vasconum, (Des)Ager Vasconum, (A)Mare Vasconum: fantasi-azko eta egiazko hiru espazio. Hori-etan barrena ikusiko ditugu Hitzaz Mendi elkarteko kideak etengabeko joan-etorrian, ahotsen anabasiatik ahots bateratuaren bila. Oroimenaren eta errealtatearen pitxer hautsia berrosatu nahian.



BELA KABELATIK TERNUARA

Bernardo Atxaga idazlearen obra barruan Haur eta Gazte literaturak izan duen eboluzioa eta eragina aztertzen dira saiakera honetan.

Asteasun jaiotako idazleak beti tartekatuta ditu haur eta helduentzako obrak bere produkzioan eta ikerketetan bereizturik aztertu badira ere, nabarmena izan da bi esparru horien arteko harremana. Horrela, helduen obretan izan diren aldaketak, estilo, tematika, lexikoa... sarritan HGLren jaso ditu Atxagak.

Liburu honetan murgiltzen denak, beraz, Bernardo Atxagaren obra hobeto ezagutzeko parada izango du; 80ko hamarkadaren hasieratik gaur egunera emaniko eboluzioa eta genero ezberdinen artean izaniko harremana. Hori guztia oso egitura berezia duen obra batean, idazleak hitz egiten baitu hasieran bere obrari buruz eta obrak, amaieran, idazleari buruz



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramanean zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiria Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Histori-aurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko

taldearen lankidetzan izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburu bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Eguneko artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko.

Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekua eta hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerriaren dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elosegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Gazteentzat informazioa San Pedro kaleko bulegoan

AUZOLANDEGIAK EZAGUTZEN AL DITUZU? Udako oporretan gozatzeko aukera aparta da!

Mota askotakoak daude: solidarioak, gizarte egitasmoak, naturakoak...
17 urtetik gorakoentzat dira gehienak estatu-mailakoak zein nazioartekoak.

INFORMA ZAITEZ GURE BULEGOAN

Edo ondorengo web orrialdetan:

www.gazteaukera.net

www.gipuzkoagazteria.net/uda

UNIBERTSITATEKO MASTER IKASKETEN KOSTUA FINANTZATZEKO MAILEGUAK

Deialdigile: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa

Baldintzak: Lehenbiziko unibertsitate titulua 2003an edo beranduago eskuratu duten unibertsitateko tituludunak, baldin ospea duen unibertsitateko master ikasketaren batean matrikulatuta badaude.

Dirua: Gehienez ere 6.000,00 euro mailegu-hartzaileko.

Edukia: Unibertsitateko master ikasketen kostua finantzatzeko maileguak.
Maileguak % 0ko interen finkoa izango du.

Epea: 2007-09-01etik 2008-07-31ra arte.

Informazioa: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa
Alcalá, 34 - 28014 Madril
Telefonoa: 91 7018000

LOGO BERRI BAT SORTZEKO LEHIAKETA DEIALDIA

Eusko Ikaskuntzak Ei Gazte! lehiaketaren lehen edizioa jarri du abian. Edizio honetan gazteria sailaren logoa diseinatzeko deialdia egiten du elkarteak. Baldintzak gutxi dira eta saria, erakargarria:

- Gaztea izatea (16 eta 30 urte bitartean).
- Gaitasun sortzailea eta gustu estetikoa izatea.
- Epea: Maiatzaren 15a arte.
- **Saria: 1500 euro.**
- Lanak Eusko Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailara bidali behar dira (Miramar Jauregia, Miraconcha 48. 20.007 Donostia)
- Informazio gehiagorako:

www.eusko-ikaskuntza.org webgunean edo 943 31 08 55 telefonoan.



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



Terapeuta manual - Osteópata

- | | |
|-----------------------------|------------------------|
| ★ Masajes | ★ Esguinces |
| ★ Movilizaciones | ★ Vendajes funcionales |
| ★ Estiramientos | ★ Lumbagos... |
| ★ Tendinitis / Contracturas | |

Plaza San Marcos, 2 bajo (Puntal)
20280 HONDARRIBIA

Teléf.: 660 080 349

Nola izena du kale honek ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Zerbitzuan jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Apirileko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Naiara Berges iridoy**. Bigarren saria, eta ondorioz, liburu sorta bat, **Julen Mendizabal Bengoetxea**-ek irabazi du.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Alde Zaharreko kale bat da, ez da ez ezagunena gure artean, baina historikoki badu bere zeresana. Bat baina gehiagorentzat bada ordua Alde Zaharretik buelta bat eman eta kaleen izenak ezagutzeko.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, ekainaren 10a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afa-ria zuentzat izan daiteke eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Berueteko hormen irudi zahar bat



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxi-bategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, guztiok hain ezagunak ditugun Berueteko hormen inguruan ariko gara. Irudietan ikus daitekeenez, horma hauek eraikitzen ari ziren garaian kokatu behar gara. Mende erdi baina gehiago igaro da ordutik hona. Horma horiei Beruete izena jarri zitzairen, orduan gainean Beruete izeneko etxea kokatzen baitzen, Tomas Beruete zenarena. Hondarribian oso ezagun bilakatu zen, gauza askorengatik, eta batez ere, 'Ama Guadalupekoa' traineruari egiten zizkion donazioei esker. Horietako batean, traineru berria oparitu zuela ere esan izan da.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Eus-kara Zerbitzura eramatea besterik ez duzue.



okindegia • gozategia



kafetegia

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

San Pedro, 3 - Atzekaldea
943 64 03 66

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
- ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Apirila 2007

JAIOZAK APIRILAN

1ean: **MANEX Larretxea Dominguez**, Hondarribiko Joseba eta Donostiako Concepcionen semea.
 6an: **LIDE Rivero Aizpurua**, Lizarrako Aritz eta Hernaniko Erikaren alaba.
 8an: **NIBIA Pikabea Cabo**, Irungo Igor eta Iruñako Maria Encarnacionen alaba.
 9an: **NAIARA Calvo Etxebeste**, Donostiako Raul eta Hondarribiko Miren Nekaneren alaba.
 13an: **MAREN Parada Jimenez**, Irungo Jokin eta Donostiako Oihanaren alaba.
 16an: **OIER Bravo Rodrigo**, Donostiako David eta Irungo Idoiaren semea.
 18an: **OIHANA Etxebeste Zabala**, Hondarribiko Angel Maria eta Irungo Gemmaren alaba.
 18an: **NECO Martin Agudiez**, Torrelavega-ko (Kantabria) Julian eta Irungo Elviraren semea.
 20an: **JULEN Lapitz Larrea**, Hondarribiko Pedro Santiago eta Donostiako Maria Cristinaren semea.
 24an: **NATALIA Gomez Tello**, Irungo Alberto eta Donostiako Maria Teresaren alaba.
 25ean: **KYRA Marruedo Iturbe**, Donostiako Sergio eta Donostiako Arantzazuren alaba.
 25ean: **OLAIA Etxaide Agirre**, Donostiako Francisco Javier eta Pasaia Maria Isabelen alaba.
 28an: **MARIA Verano Miras**, Donostiako Francisco Javier eta Donostiako Evaren alaba.
 30an: **MARIA Viniegra Ramajo**, Badajozeko Antonio eta Irungo Noeliaren alaba.



EZKONTZAK APIRILAN

12an: **ANTONIO MARIA Fernandez Dorronsoro**, Irungoa, eta **SILVIA Fernandez Bahamonde**, Bilbaokoa.
 26an: **JORGE DAVID Cuellar Alejandro**, Madrilekoa, eta **MARIA MONTSERRAT Menendez Arias**, Donostiakoa.
 26an: **ANTONIO Araolaza Zumeta**, Usurbilkoa, eta **MARIA JESUS Gomez Lago**, Portugaletekoa.
 26an: **IGOR Teresa Oronoz**, Hondarribikoa, eta **AINHOA Perez Anzisar**, Hondarribikoa.
 26an: **SERGIO Velazquez Agirre**, Erreterriakoa, eta **MARIA JOSE Flores Martin**, Donostiakoa.
 26an: **IBAN Aristizabal Sierra**, Irungoa, eta **BEATRIZ Albistur Urrestilla**, Hondarribikoa.



HERIOTZAK APIRILAN

3an: **DOLORES Beristain Iziar**, Azkoitiakoa, 96 urte.
 4an: **MARIA PILAR Irigorri Aranburu**, Hondarribikoa, 76 urte, Zimizargako Txorinea baserrian.
 6an: **FERMIN Olaskoaga Enrique**, Hondarribikoa, 73 urte, Javier Ugarte kalean.
 10ean: **EUGENIO Luna Narbarte**, Hondarribikoa, 66 urte, Irunen.
 13an: **MANUEL Gomez Regueira**, Chare-koa (Lugo), 81 urte, Amute kalean.
 14an: **JOSE LUIS Lasa Elorriaga**, Irungoa, 66 urte, Bitoriano Juaristi kalean.
 16an: **JOAQUIN Larrarte Zoziaia**, Hondarribikoa, 91 urte, Santiago kalean.
 17an: **BIENVENIDO Blanco Cienfuegos**, Ponferrada-koa (Leon), 84 urte, San Gabriel egoitzan.
 17an: **LEANDRO Etxebeste Ordoki**, Hondarribikoa, 86 urte, Arma Plazan.
 19an: **MARIA VICTORIA Ziganda Ilarregui**, Oiz-koa (Nafarroa), 77 urte, Gibeleta kalean.
 19an: **ANTONIO Arozena Alberdi**, Irungoa, 84 urte, Gibeleta kalean.
 20an: **ERNESTO Limousin Villenave**, Aintziondo etxadian.
 20an: **MANUELA Behobide Lekuona**, Irungoa, 87 urte, Mendelu kalean.
 21ean: **NICASIO Sunsundegi Etxaide**, Hondarribikoa, 86 urte, Akartegi ko Bordaberri baserrian.
 21ean: **MILAGROS Ordoki Biurrena Arantzakoa** (Nafarroa), 83 urte, San Gabriel Egoitzan.
 22an: **MANUEL Solozabal Areitio**, 80 urte, Mendelu kalean.





FERMIN OLASKOAGA
jasotako datuak:

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK APIRILEAN

Altak:Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 74.
Bajak:Hildakoak: 16, eta herritik joanak: 60.
Biztanle kopuru orokorra:16,499 bizilagun.

APIRILEKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 429 euskaraz,
1647 gaztelaniaz eta 26 bestelakoak. Guztira:
2102 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 28 euskaraz,
137 gaztelaniaz eta 5 bestelakoak. Guztira:
170 liburu.

Bazkide berriak: 8 gizon eta 9 emakume.
Horietatik 12 heldu eta 5 haur. Guztira 17.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: Nire lehenengo ordularia.-
Ttartalo.

Gaztelaniaz: COUSINS, Lucy. - Qué
tiempo hace, Maisy.- Serres.

Helduak:

Euskeraz: BOYNE, John.- Pijama marra-
dunaz jantzitako mutikoa.- Alberdania.

Gaztelaniaz: FOLLET, Ken.- Un mundo
sin fin.- Plaza y Janés.

APIRILEKO EGURALDIAREN DATUAK

Tenperaturarik gorena:22,7° C, hilaren 29an.
 Tenperaturarik beherena:4,5° C, hilaren 7an.
 Batez besteko tenperatura:13,3° C.
 Batez besteko hezetasuna:% 71.
 Euri-litroen kopurua:154,9 mm.
 Egunik euritsuena:hilaren 10an 25,6 mm.
 Euri indartsuenen unea:hilaren 13ko 15,4tan, 18,0 mm/orduko.
 Egunik euritsuak:19 egun.
 Elur egunak:0 egun
 Kazkabar egunakegun 1
 Ekaitz egunakegun 1
 Behe-lainoko egunak:3 egun
 Ihintz egunak:10 egun
 Zeru oskarbia:2 egun
 Zeru lainotua:19 egun
 Zeru estalia:9 egun
 Eguzki kopurua:183,5 ordu
 Batez besteko presioa:1012,3 milibar
 Presiorik gorena:1031,8 milibar, hilaren 1ean
 Presiorik beherena:983,0 milibar, hilaren 18an
 Haizea >55 Km/ord.7 egun
 Haizerik indartsuena:hilaren 18ko 12,35etan, 80 Km/orduko.

(Hondarribiko aireportutik jasoak).

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrotta.com



**Euskadiko
Kirol
Portuak**

Bermeo
Donostia-San Sebastián
Getaria
Hondarribia
Orio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SERVICIO DE PORTOS Y PUERTOS
Y SERVICIOS DE PUERTOS





Sensor Aire



Separador viento



Mando a distancia



**Panel deslizable
Screen**



Enrollable Screen



Enrollable Screen



Panel deslizante Tela



Veranda

DOBLE A

www.doble-a.com

Tel: 943 667 003

Amute, 8 bajo C (Frente Aeropuerto) - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)

ERKA SUMINISTROS
ELECTRICOS



ERKA OSAGAI
ELEKTRIKOAK



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo

Tel: 943 62 52 49

Fax: 943 53 73 48

20304 Irún